

## ANTZUOLA / Ipuin kontaketa saioa heldu eta haurrendako

Pablo Albok 1994an kontatu zituen lehen aldiz ipuinak jendaurrean. Idazlea eta blogaria dugu Albo. Palabras izeneko bitakoran bere pentsaerak eta hausnarketak jarraitzeko aukera ere ematen digu:

**[www.pabloalbo.blogspot.com](http://www.pabloalbo.blogspot.com)**. Hitzzen hezitzaile gisa aurkezten du bere burua. Ipuinek ez dutela adinik dio, baina adin bakoitzak bere ipuina daukala gaineratzen du blogean. Umorez jantzitako ipuinak dira, baina azpian, barrenean sakontasuna dutenak eta publikoari zer pentsa eragiten dioten istorioak dira. Gorputzez eta arimaz kontaktzen ditu ipuinak, keinuekin eta begiradarekin. Idazlea ere bada eta haurrendako 27 liburu idatzi eta argitaratu ditu. Bestelako helduendako eleberriak ere argitaratu ditu; zazpi guztira: *Mar de sábanas*, (2003); *Estela*, (2008); *Marabajo*, (2008); *Diógenes*, (2008), *¿Rinoceronte?¿Qué rinoceronte?*, (2009); *El último canto*, (2010) eta *azkena, Gigante poco a poco*, (2010).

### Haurrendako ere

Eta nola ez, herriko txikitxoendako, Antzuolako liburutegiak eta kultura sailak antolatuta, domekan Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariaren istorioez gozatzeko aukera izango dute. 4 eta 9 urte bitarteko haurrendako saioa da. Torresoroan egingo da 18:00etatik aurrera domekan eta sarrera doan da. Ixabel Agirresarobe Usurbildarra da. Esperientzia handidun kontalaria eta aktorea ere bada Agirresarobe. Ipupomamua umeendako saioan Hans Christian Andersen idazle handiaren ipuinak kontaktzen edota Wazemank umorezko saio arrakastatsuan aktore lanetan ere izan da usurbildarra, besteak beste. Eta ezin ahaztu, Xabinaitor antzezlan arrakastatsuan ere Alkain eta konpainiarekin Agirresarobek egindako lana. 1990ean hasi zen kontalari gisa eta dagoeneko makina bat liburutegi, gaztetxe, barnetegi, ikastetxe eta areto zapaldu ditu Euskal Herrian.